

ERANSKINAK

1. Eranskina. Inkesta eredua.

Elkarrizketak egiterakoan erabilitako inkesta eredu edo moldeak da jarraian azaltzen dena.

- **Giroan sartzeko:** Eskola sasoiak kontatzeko eskatzen zaie lehenengo elkarrizketa erreferentziatuz hartuta, hurrengo elkarrizketatuei lehenengoan jasotako datuen bat aipatzen zaie, gauzak gogora ditzaten eta informazio gehiago atera ahal izateko.
- **Olgetak galdetu, eskolan zertan olgatzen zuten galdetu:** Eskola garaiko testigantza jaso ondoren ia eskolan zertan olgatzen zuten galdetzen zaie jarraian.
- **Olgatzeko kantatzen zituzten kanta galdetu.** Olgetak jaso ondoren, olgatzeko kantatzen zituzten kanta galdetzen zaizkie, hala nola, ume txikitxoei kantatzen zitzaizkien kanta. Zerrenda txiki baten jasotako kanta batzuen izenak esaten zaizkie euren gogoratzen dituztenak jaso ostean. Aipatu bako kanta batzuen izenburuak entzutean kanta gehiago jasotzen dira, informazio gehiago eskuratzen da. *Txalo pin txalo, Arre arre mandako, Peru zapatarie, Kandelario lerio* dira zerrendako kanta batzuk.
- **Ipuinak galdetu:** Ipuinak dira amaieran jasotzen direnak, aurreko guztiak gidaturik galdetzen dena. Ia animalien ipuinik dakiten galdetzen zaie, otsoenik edo, Jentilen berri duten, Mariren berri etab.

2. Eranskina. 1933ko eskola garaiko testigantza

Hurrengo Cristina Atutxa Ingunza dimoztarra elkarrizketatzean jasotako testigantza da, 1933ko eskola testigantza, Obako auzo eskolakoa.

“Cristina Atutxa Ingunza naz. 1927.urtean jaioa. Urrien 27.ean. Dimeko Elexpe auzoan jaio nintzan. Dimen jaio nintzan eta bizi naz. Zazpi anaien artean ni nintzan neska bakarra. Ama gazte gazterik itsutu zan eta hiru urte eskolan eginda etxera joan behar izan neban etxean behar egin eta etxeokoi lagundu ahal izateko.

Oban ikasten neban, auzo eskola baten, mistoa zan. Neskak alde batera ikasten genduan eta mutilek beste alde batera. Halanda be, errekreoetan juntetan ginan kanpoan eta batera olgetan genduan. Mutilek txirikelan arituten ziran batez be, eta gu neskok soka. Klaseak handitxoak ziran holan sala handiek eta haietan ikasten genduan.

Sei urtegaz agindu eustien eskolara, joan behar zanez etxeokoi hara agindu eustien, auzoetako beste lagun batzukaz batera. Eskolara hasi eta segiduen Miren maistreak muñekatxu bat, txiki txikie eta polite, jantzi azule eukiten ebana puntileagaz eta erregalau eustan, polit polite. Ha zan andereño ona. 9 urtegaz itzi behar izan neban eskolea, nire ama biste barik gelditu zan, itsu, konpleto, eta itzi egin behar. Gure amari andra batek esan eutson:

-Ai, hori de penea!

Ze eskolan polito egon ginan gu. Eta berez bizkortxoak izan ginan eskolarako. Ama itsutu zanean mutil hutsek egon ziran gurean: Casiano, Justo, Hijinio, Antolin, Jose eta Pedro, eta ni izan nintzan 9 urtegaz eskoleari itzi behar izan eutsona. Ni nintzan neska bakarra, ama ezetako bez, gauzeri atendiduten neu, besteen baten be amari esan eutsien:

-Hori da penagarrie hain gazterik koitiduek eskolea itzi behar izatea.

Eskerrak gure aite izan zan bizkorra. Gure aite baserrikoa izatekotan jakitune izan zan, ze badiñotsut hak ahalegine egiten euskun gaubetan dadeberetxoak ipinten euskuzan, multiplikar, sumar, restar... eta egiteko. Eskribiduten eta danera, gure aite kapaza izan zan. Oin gure mutilek be edozein gauze egiten dabe eta harexek be handik baeukan sikeraz erraztue.

Joan behar izaten neban Elexpetik bajatu, Olazabaletik Dimera bajatan dan moduen. Holan troka batetik, lehenango lehenango errekatxu bet kruzetan genduan, geroagoan

beste bat eta hiru erreka. Elexpetik trokea bajatu orduen ganera bariro Obara arte igon behar zan bajatu genduanan beste horrenbeste bariro be gorantza. Aurie zanean busti bustite ailegetan ginan eta egun guztien bustite egon behar eskolan. Guardasolik be ezan egoten eta sakuekaz. Gure eskolok hantxe izan ziran. Pobre pobreak izan be izan ziran. Emaldi eta Atutxetik gorako guztiek joaten ginan hara. Eskolak hasita egoten ziran gu heldu orduko eta ez genduan kantetan hasikerakorik. Matrimonio bat parau zan eskolok atendiduten edo eta jentea ez egoan pozik. Ni neu señoita Miren andereñoagaz pozik baño pozau egoten nintzan e. Polit polite zan, berak erregalauko muñekaxuen besteko polite.

Egun baten, erreka edo itsaso baztar batera joan ginan eskursinoan hemen Leitokin urtenda. Kamioaian joan ginan, begitu egizu zelango kotxea e. Lo gelditu nintzan, orduen altzoan ekarri eustan lo andereñotxuek. Horrek maistretxuek lehenango bi urteak egin ebazan. Gero permanenteak egiten hasi orduen uleetan, andereño hori ez zan bariro handik agertu. Zabaldu zan permanentea buruen egin eta zoratu ete zan.

Borragomea eukitea lujoa zan. Eskolan emoten euskuezan lapitzek eta baina liburu barik ikasi neban, eskribidu eta leiduten eta matematiketako beste kontuen batzuk baino ez nebazan ikasi eta.

Eskolarako abile nintzan ni. Asko gustetan jatan eskribidutea. Ruperto eta ni, eta Egiraungo Jose Luis hirurok bate batera ibili ginan eskolan eta ibilten ginan erratu barik ia nok tirituten eban hurrinen, eta nau izaten nintzan. Nau izan nintzan falta barik han hiruron artean aurrera egin ebana.

Txarrik ez daukot, baten maistra bat jo ebela eskolako mutil nausi betzuk 15 urtekoak edo. Ha izin zan txarra, gero kastigau edo egin ebezan. Ikasi neban 3 urteatan oporrak eukiten genduazan, fiestetan, auzoko San Antolinetan, ze Oban San Antolin zan, eta gabonetan egun betzuk, baina holan zuon moduen uden eta ez.

Gurean aitek soldadutzea egin behar izan eban Galizian eta han ikasi eban erderaz. La Coruñan. Ostein gurean egundo be ez zan egin erderaz. Gero aite bueltau zanean bai. Nire ama erderaz ikasi barik hil zan. Bere bizi guztien zehar euskeraz egin eban. Guk be danok euskeraz egiten genduan. Eskolan bakarrik erderaz, derrigorra zan eta. Obligau egiten euskuen. Gerrea hasi arte euskeraz baino ez zan egiten. Gerra ostein erderaz eginazo egiten euskuen eskolan. Guk erderaz egitea gatza zan, ikasi egin behar izan

genduan. Euskeraz egitearren kastigau egiten euskuen, errekreora olgetan urten barik eta belauniko eta... baina bardin bardin guk beti euskeraz.

Nik behar 30 urtegaz egin neban etxetik kanpo lehenangoz naure dendea ipini neban orduen. Ni nora joango nintzan ba alabatxoa? Ama itsue eta orture joan behar izaten neban atzurren eta bedarrebaten eta... Patatea erein, atara... Soloan gogotik ibiltzen nintzan, makine bat behar.

Kontuak atara egizuz baten nire neba batek eskribidu euskun, bera Barzelonan egon zan soldadu gerran eta el dia 14 fetxeagaz etorriko zala Zeberioko mutil bat eta ia mediek bildu al bageuntxazan gerrara. Orduen koiu egiten genduan soloan garie eta ayuntamientuetara zorroak galantak eroan behar izaten genduazan, gero eta gehau eukin gero eta gehau bajatu behar izaten zan, eta bien bitartean etxean gosea, artomuturrek jaten goseak hilik. Por ejemplo etorriko da 14ean. Labako sue egiteko egoala peskatera bat etorri zan Zorrontzatic sardinek saltzean Salomé, eta nire amagaz ondo arregletan zan. Horduentxik egunean ibili zan peskatera hori Dimetik eta gure amak esplikau eutson semetxoan kontue zelan ogi bet agindu gura geuntson gerrara eta baten batek urunegaz pagu eutsonez amari eman egin eutson:

-Soldaduentzat bahona itziona.

Egin genduan ogi hori eta botak eta aitek egineko mediek prestaute aite eta, txarrie hil barri eukin genduan eta Durungora joan ziran ama eta biek hesteak erosten Dimen holangorik ez egoan, botak, pamitxea eta pernile be semeari handixik agintako. Orduen Zeberioko mutil bat agertu zan, nire nebeari agindu beharreko gauzen bile, aite eta ama joan barri ziran baina nik hareri mutileri artoa ipini neutson eta urdaie gatza hartute zikituten egon zana emon neutson nire neberari emoteko. Urdaie eta artoa ipini neutsozan eroateko, naure nebeagana gerrara eroateko. Zortzi urte be enebazan eukingo baina berari be Zeberioko mutileri arrutze bi prijidu neutsozan bazkalorduen etorri zan eta, igurdien. Jan eban, pozik. Casianok ikusi ebazanean aitek eta bildukoa, eta nire arto nausie eta urdaie, kartan bota eustan itargie ikusten eban orduen nigez akordetan zala, haregaz aginduko artoagaz.

Naure semetxo batek hiru urte baño ez eukukezala eskolara agindu behar izan neban, ze nik behar handie eukiten neban ama jagon eta etxeko beharrak eta ganera dendan be behar egiten neban, eskolara aginduteko esan eustien. Azkenean agindu behar izan

neban izajotxue. Lehenango egunean, bazkaldu barik itzi eben, ai nik eukin neban nik penea!”

3. Eranskina. Olgetak

Atal honetan, hemeretzi olgeta eta beste olgeta batzuk aurkezten dira, ordena alfabetikoan jarrita.

3.1. Atzenka

Lagun guztiak joaten ziran arineketan eta harrapetan zanak, bat harrapau orduen “atzen” esaten eban. Gero bera zan harrapetan. Normalean etxerantzean olgetan zan, azkenengo agur moduen, arineketan etxean sartu arte.

3.2. Denderitas

Bedarrak hartu eta mostrador moduko baten saldutera olgetan zan. Orriekaz pagetan zan. Eta danari gustetan jakien erosten baño, saltzean gehau.

3.3. Etxetxoka

Familiek egiten ziran lehenengo. Bata ama, aite, bardin zan mutile nahi neska, amama (beti egoten zan, falta barik), hiru lau famili egiten ziran eta holan olgetan eben, bazkarie egiten, etxeko rola interpretetan.

- Zoperea: Katillue apurtan zanean bueltea emonda
- Txuletak: San bedar zabalak
- Sardinek: San bedar luzeak
- Fideoak: San bedarrari atarako hari luzeak
- Arroza: Horma zuloetako landarea
- Kafea: Uztai bedarran garaun gorrixkea, gero baltz paretan dana
- Arrutzek: Lora beiegiek
- Tortillea iteko arrutzek: Erdien hazi askoko lorea, orri finek dekozana
- Ogitxuek: Mamukio bedarrak

3.4. Harrie ondo ondo gorde

Danak jarrite. Batek esku artean harri bet eroaten eban eta eskurik esku pasetan zan baten bateri esku artekoa emon arte. Beste bat begire gelditan zan eta jakin behar eban nok eukan harrie. Hau kantetan zan:

Harrie ondo ondo gorde,
harrie ondo ondo gorde,
harrie ondo ondo gorde ...

3.5. Ixerka

Harrapetan zana bestean ostetik joaten zan harrapetan arineketan eta bat harrapau orduen ixer esaten zan eta han gelditu behar zan geldien. Gero lagun bat joaten zan ha joten, libretako.

3.6. Kinkinera

Inkera olgetan zanean kantetan zan, inkea koadroetara botaten zan.

Kin kin
balentin
belea belea
kun-kun.

3.7. Kunak eitera

Binaka olgetan zan eta batak besteak esaten eutsona egin behar eban, goitik edo behetik. Kordel fin edo laneagaz forma desbardinek sortuten ziran.



3.8. Salka

Muge bi ipinten ziran talde bakoza albo batean paretako. Txandaka botata talde bakozetik toketan jakonak urtetan eban arineketan eta batak bestea harrapetara egin behar eban. Beste taldekoa harrapetan ebanak preso moduen beren taldera eroaten eban. Presoak librau ahal izateko, taldeko batek joan eta eskuen emon behar eutson presoari.

3.9. Soka saltue

Aupa neskatila,
bai soka jokoan,
bai soka jokoan,
bai soka jokoan.
Bat eta bi,
hiru lau eta bost,
hamar gehiago
dira hamabost

3.10. Tabak

Tripea: hazurre dekona atzean

Lepoa

Zuloa: Lisu dauena

Belarrie: Beste aldean

Sei tabagaz olgetan zan, trebeak hamabigetz. Kanikeak botea emoten eban artean eukin behar zan trebetasune taba guztiek era baten ipinteko, danak tripea gorantza, era batera eta gero beste batera. Batzuk boteagaz egiten eben eta beste batzuk bote barik, gorantza botata. Tabak ondo nahastuten ziran. Lekue aproposa izan behar zan lisue eta brilludune kanikeak ondo botetako.

Kanikea: Gaseosak ekarten ebana, rodamientuena, erosiek, koloreetakoak ...

3.11. Txankolinke/Txankorinke

Txankolinke berbeak, oin bakarraren ganean saltoka egitea esan gura dau. Baina olgeta baten izena be bazan.

Erreiek eginda egozanean, lehenangoak harrie botaten eban, harriek polite izan behar eban, harri mondrongo bat ez, suteetako harri fin bat, marmol zati bat. Zelaien kontra egiten jakozan mogimiendu batzuk, indarra hartzeako eta gero lehenangora botaten zan eta barruen gelditan bazan, hori hasten zan olgetan. Txonkorronka joan behar izaten eban, lehenango koadroa ikutu barik, bigarrenera salto eginda eta txonkorronka hirugarrenera. Laugarren eta bosgarrenean hanka biak batera ipinita zapalduten ziran koadrook, seigarrena txonkorronka, zazpi eta zortzigarrena alde batera, bederatzie txonkorronka eta hamargarrenean salto eginda buelta eman behar zan. Gero buelta egin eta bigarren koadroan egoala, lehenengotik harria hartu behar eban eta hasierara bueltau. Hori ondo egiten baeban, gero hurrengora, bigarrenera bota behar izaten eban harria eta bardine egin. Txarto eginez gero hurrungoa izaten zan.

3.12. Txapetaka

Poxporo kajari marrazkiek kendu eta harik ipinite olgetan zan. Distantzi betetik txapea botaten zan (zapatan takoia) eta tarjetak koadrotik ataraz gero, hori noberentzat izaten zan. Bigarren buelta bat be baegoan.

3.13. Txibilibilinke/Txori buru handi

Burdiek kamea eta ardatz bat eukezan eta larakoa. Han paretan zan bat eta beste guztiek burdien atzeko partean paretan ziran. Altxetan eben goraino eta esaten eban goikoak:

-Txibilibilinke

Eta besteak:

-Zenbet zezen Bilbon?

-Hamabi

-Nor buru handi?

-Urlie buru handi (*goikoak esaten eban izen bat*)

Orduen bera bajatu egiten zan, kamara joaten zan eta berak esanekoa paretan zan.

-Txori buru handi

Eta besteak:

-Nor buru handi?

-Urlie buru handi (*goikoak esaten eban izen bat*)

Orduen bera bajatu egiten zan, kamara joaten zan eta berak esanekoa paretan zan.

3.14. Trenabioska:

(Tres navios en el mar)

Ostontan ziran eta ostondute egozanean esaten eben: trenabios en el mar. Topetan zanak esaten eban: otros tres en busca van.

3.15. Xibiroa

Errama baten soka bi ipinten ziran eta horreiri eragin egiten jakien, eperdikoa hartu arte.

3.16. Txopolinke

Zulo bat egiten zan eta intxurrekaz, urrekaz edo kukubalakaz (aretxak daukiezan agallak) holangoxe batzukaz bete egiten zan.

3.17. Txirrindolea

Balde zahar bategaz eta alanbreagaz joaten ziran.

3.18. Ostontaka

Bat kontetan gelditan zan. Bien bitartean besteak ostondu egin behar izaten ziran. Kontetan akabetan ebanean, bestean bile joaten zan eta baten bat ikusi orduen horren izena esan behar eban eta holan danak topau arte. Ostondute egoanak libretako kontetan zanak kontauko lekuen beren izena esanda balio eban.

3.19. Txorro morroka

Olgetako bajuena zana hormean kontra parau edo jarri egiten zan eta besteak talde bitan banatute paretan ziran. Talde bat makurtute ipinten zan eta lehenengoak jarrite egoan pertsonaren hanka bitartean ipini behar eban burua. Beste taldekoak makurtute egozanan ganetik egiten eben salto, batak bestean ostetik. Zelaire jausten baziran lekuek kanbietan ziran. Ganetik pasaukeran: txorro, morro, piko, taio, ke esaten eben. Jarrite egoanak atzamar bat erakusten eutsien zutik egozanari eta makurtute egoanak azertau egin behar eban. Azertau ez gero saltoak egiten ebezan eta azertau ezik saltoak aguantau.

3.20. Beste batzuk

Diaboloa, yoyoa ...

4. Eranskina. Katak

Eranskin honetan elkarrizketetan batutako kanten transkripzioak aurkezten dira. Katak lau multzotan sailkatu dira: lo katak, olgetakoak, errezitatuak eta jai egunekoak. Jai eguneko katak izan ezik, beste guztiak ordena alfabetikoan aurkezten dira. Jai egunekoak ordea, denbora ordenan, urtean zehar jai egun bakoitzak duen dataren arabera.

4.1.LO KANTAK

Lo kanten atal honetan lehenago umeei abesten zitzaizkien katak aurkezten dira, umeei loak hartu ziezaien abesten zitzaizkienak. Esan bezala, alfabetikoki ordenatuta. Zenbakituta dauden bertsoak jasotako bertsiotik ezberdin bi dira. *Obabatxue* kantan esaterako 1) eta 2) agertzen da, beraz, bi bertsiotik ezberdin direla adierazten du horrek.

4.1.1. Aitite dala kukulunberde

Gure aitite kukulunlunberde
gure amama masuste
aite joan da Bituriera
ama lepoan hartute
aite etorri de Biturietari
ama bidean galdute

4.1.2. Logure naz

Logure naz ta lo eingo neunke
baneunko ohirako lagune
logure naz ta lo eingo neunke
baneunko ohirako lagune
ohirako lagune badekot baña,
agure lepo makurre
ohirako lagune badekot baña,
agure lepo makurre

4.1.3. Obabatxue

1)Obabatxue txingorri gorri
ez egin lorik basoan
azagariak jan ez egizan
bildotsa zarealakoan

2)Obabatxue lo ta lo
zuk orain eta nik gero
zuk gure dozun orduen baten

biok egingu lo ta lo

4.1.4. Txikitxu polit hori

Txikitxu polit hori,
zer dozu negarrez?
Txikitxu polit hori,
zer dozu negarrez?

Aitek tabernarako
dirurik emon ez,
aitek tabernarako
dirurik emon ez
amak emon balustez
hamar hamarreko,
amak emon balustez
hamar hamarreko,
ezkonduko nintzela udebarrireko
ezkonduko nintzela udebarrireko

4.1.5. Txikitxue zera

Txikitxue zera baña,
hasiko zera ondiño
txikitxue zera baña,
hasiko zera ondiño
hasiten ezpazera be
ezaitutela itziko,
hasiten ezpazera be
ezaitutela itziko

4.2.OLGETA KANTAK

Olgetako kantak dira jarraian azaltzen direnak. Umeei kantetako kantak ziren batik bat, umeekin olgetakoak.

4.2.1 Arre arre mandako

Umea iztertolaka ipinten zan eta eskuetatik guatute hau kantea kantetan zan. Zapatak eta garriko esakeran hankak zabalduen ebazan ie ie jausi arte umea, baina jausi barik.

1) Arre arre mandako
biher urrinerako
handik zer ekarriko?
txaleko ta garriko

2) Arre arre mandako
biher urrinerako
handik zer ekarriko?
zapata ta garriko

4.2.2 Din dan nor hil de?

Din-dan
nor hil de?
Peru zapatarie,
zer egin dau pekatu?
auzoko txakurre urkitu,
laba ganean sikitu,
hori baño ezpadau egin
behako jako parkatu

4.2.3 Eragiozu

Ume txikerrari kantetan jakien lehenango esku bat erakutsi eta gero bestea. Holan umeak bata eta bestea desbardinduten ikasteko:

Eragiozu,
eskutxoari,
behin batari
eta behin besterari

4.2.4 Kukurruku zer dakazu?

Umea altzoan ipinten zan eskutxuetatik hartute:

Kukurruku
zer dakazu?
txokolatea
nointzako?
urlientzako (*izen bat*)
urli (*izena*) eztau etxean
biher etorriko da
txokolatea hartzean

4.2.5 Lehenengotxu hori

Lehenengotxu hori
puntan behatz hori
beste guztien artean
txikerra dok hori

Bigarrentxu hori
puntan behatz hori
beste guztien artean
arpela dok hori

Hirugarrentxu hori
puntan behatz hori
beste guztien artean
handia dok hori

Laugarrentxu hori
puntan behatz hori
beste guztien artean
bizkorra dok hori

Bosgarrentxu hori
puntan behatz hori
beste guztien artean
lodie dok hori

4.2.6 Txalo pin txalo

Txalo pin txalo
txalo pin txalo
katutxue mesmeru
ganean dago
badago bego
bego badago
zapata barritxuen

begire dago

4.3.ERREZITATUAK

Kanten hirugarren atal honetan errezitatuak aurkezten dira. Gehienak umeei errezitatzekoak dira, melodiarik gabekoak.

4.3.1 Atxean motxean

Eskuek mahai ganean ipinten ziran, errezitetan ebanak eskue atzamarretatik pasetan eban eta akabetan ebanean zuhur egon ez zanari atzamarra hartuten eutson. Hori eskue gorde egin behar zan eta segidu egiten zan danok esku barik gelditu arte. Eta ha zan usandra.

1) Atxean motxean bestelakotxean
xirrin xarran dominipan
joan nintzen errotara
topau nouen erbi bet
jaurti neuntsen harri bet
atera neuntsen ezkerreko begi gorri bet
Txilimini kanpa,
txi txan!
Nor dozu nobie?
Txori buzten gorrie

2) Atxia motxia bestela kotxia
zirin zaran dominipan
hire semea errotan
errotara nindoala
topau nauen erbi bet
jaurti neuntsen harri bet
atara neuntsen ezkerreko begi gorri,
gorri bet

4.4. JAI EGUNEKOAK

Kanten laugarren eta azken atal honek jai eguneko kantak aurkezten ditu. Urtarriletik abendura bitartean kronologikoki ordenatuta azaltzen dira kantok. Erlijio kristauari hertsiki lotuak dira, gehienetan santu, Ama Birjina eta fededunei egindako aipuak agertzen dira.

4.4.1 Urte barri barri

Urte barri egunean portalan kantetan zan eta etxeakoak zauzer emoten eutsien: urrek, intxurrek, sagarrak...

txilimini kanpa, txilimini kanpa,
txau!

4.3.2 Atzamarrana

Honek arrutzetxoa topau,
honek ipini,
honek gatza bota,
honek probau
ta honek potolo-potoloak dana jan

4.3.3 Sagu, saguzarra

Umeari hagine jausten jakienean esaten zan eta gero hagine tellature bota:

Sagu, saguzarra
autsi hagin zaharra
ekazu hagin barrie
saguzar baragarrie

4.3.4 Txirintxaketan

Txirintxaketan akarra jantzan
astoa bibolin joten,
azagarie sueri puzke,
erbie urune eralten

Urte barri barri
deukenak ezteukonari
nik ezteuket eta
niri emoten dostenak
jangoikoak berari

niri eztostenak emoten
txarri belarri

4.4.2 Erregen erregen

Erregen egunean kantetan zan:

Erregen erregen
timilintañe
hiru intxur da lau gastañe
si nos dan,
no nos dan
aquí no nos faltará

4.4.3 Kandelario lerio

Kandelario lerio
atxari ure dario
erroteari urune
hauxe da
guk behar dune

4.4.4 Santa Ageda

Aintzaldu daiguna
Agate Deuna
biher dala Deun Agate
etxe honetan zorion hutsa
beti eukiko ahal dabe

Lehenauko zaharren antzera
datoz gure etxera
berrahun eta berrogei eta
larogeigarren urtean

Orain bagoaz hemendik eta
eskerrik asko danori
agur urrengora artean eta
osasun onagaz bizi

Solomilloaren luzea
haren koipearen dulsea
zati te zati ibili barik
emoiostezu osoa

4.4.5 Ama Birjinari

Maietzean lorak ipinten jakozan Ama
Birjinari. Lehenango errosarioa erresau
eta gero kantau egiten jakon.

Aurrekoak:

Lora guztien lora
grazien grazia,
zu zara ama maite,
donsella garbia,
donsella garbia

Atzekoak kontestau:

Guzti guztiok
arkal harturik
opa deusugu Maria,
zeruko izarra loraz beterik,
zeruko izer argia

4.4.6 San Antonio

San Antonio, San Antonio
behie gexorik dauenean
San Antonio ez dogu esaten
esnea batzen danean

4.4.7 Urkiolara joan

Urkiolara joan,
zapatak urrutu;
gure San Antonio maiteak
barriak eingoitu

Askok egiten deutso
San Antoniori,
egun batean joan, maitea,
ta bestean etorri

Aita San Antonio
Urkiolakoa,
askoren bihotzeko, maitea,
santu debotoa

Durungon bazkaldute
Mañaritik gora,
aldatz handie dago, maitea,
San Antoniora

Urkiolara joan
domuru santuruz;
lehengo preguntea, maitea:
non dau Maria Jesus?

Iturrira joan da
laster da etorri,
mandazain mutilokaz, maitea,

tardau ezpaledi

Mandazain mutilaren
errosarioa,
Birjina Santa Klara, maitea,
Erriojakoa

4.4.8 San Juan

San Juan bezperan kantetan zan,
lehenago eskuteagaz ibilten zan solorik
solo.

Eskutea: Galtsuegaz eginekoa. Garie
ebagi orduen ebagi eta moltsoak
moltsoak izten ziran eskutea egiteko.
Hareri gero sue emoten jakon eta San

Juan bezperan soloari bueltea emoten
jakon.

San Juan aretxa be ipinten zan eta loran
bat be, espiritu okerrak sartu ez egiteko.

1)San Juan, San Juan bagillean
denpora denpora ederrean
sapoak eta subeak erre
artoak eta gariek gorde
gure etxean lapurrik ez

2)San Juan, San Juan,
San Andres
gure soloan lapurrik pez,
sorgini pez badago be
erre beitez

5. Eranskina. Ipuinak

Eranskinen azken atal honetan jasotako ipuinak aurkezten dira. Izenburuaren arabera ordenatuta daude, ordena alfabetikoan. Ipuinen atala lagun biren arteko elkarrizketarekin hasten da eta jarraian hamalau ipuin eta aipu azaltzen dira.

- ¿Vamos a la iglesia?
- Ez jaukat zapatarik
- ¿Vamos a la taberna?
- Etxoik amanak jantzi arte

5.1. Abadearen txakurra

Berrizeko abadea herrien oso estimatua zan eta bere urte egunerako txakur eder bat erregalau eutsien herritar guztien artean. Abadea pozak jota egoan bere txakur haregaz eta mimo guztiek egiten eutsozan, gustuko jana emon, kate dotorea ipini... abadea hain egoan pozik txakurragaz, mezak emotea be ahiztu egiten jakola. Kostata baina txakurra berak agindukoa egiten hasi zan, hankea emon, itzun. Abadea harro egoan txakurragaz, esaten eban bere txakurrari berba egitea bakarrik falta jakola.

Eleizako sakristauak, frantzian txakurrai berba egiten erakusten eutsiela esan eutson eta abadeak:

-Nik dirue emoten badeutsut zuk txakurre hartu eta Frantziara eroango dozu?

-Bai, zuk behar dodan diru guztie emon eta nik txakurre Frantziara eroango dot eta euskeraz berba egiten dakiela ekarriko dot.

Abadeak esku bete diru eman eutson eta sakristauak txakurra altzoan hartu, kategaz lotu, taxi bat hartu eta Frantziara joan zan. Bidean hainbatetan gelditu ziran eta Frantziara ailegau ziran asko kostata. Frantziara ailegau ziranean abadearen txakurra saldu egin eban sakristauak eta irabaziko dirua eta abadeak emondakoa gastatu ostean Berrizera bueltau zan. Berrizen, abadearengana joan zan mezara eta abadea hain pozik egoan sakristauak esango eutsana entzuteko mezea emoteari itzi eutsala eta esan eban:

-Herritarrok, gaurkoagaitik mezea alde batera itziko dot eta beste egun baten meza bi emongo dodaz.

Herritarrak apur bat hasarre baina joan egin ziran, azkenengoak atea itxi ebanean abadeak sakristauari besarkada bat emon eta esan eutson:

-Lagune, non itzi dozu nire txakur berbatie, ba?

-Parkatu baina oraindino ez dau berba egiten ikasi, guztiz ondo ikasteko pare bat klase gehiago behar dauz eta horretarako beste eskukada bat diru behar dot.

-Ondo da...

Orduen esan eutson sakristauak:

-Txakurrak berba egiten ikasten dauanean etorriko gara. Arinago banoa arinago akabauko dogu!

-Agur bai eta ondo ibili!

Sakristauak dirue gorde, taxira sartu, atea itxi eta abadea eskuagaz agurtuten eban bitartean taxia martxan ipini eta barrero be Frantziarantza joan ziran, oraingoan sakristauak bost izardun hotela hartu eban. Hamabost egun bertan pasau ebazan, diru guzti guztia akabau arte eta trena hartu eban bere herrire bueltetako. Herrire bueltau zanean abadeak preguntau eutson:

-Non dau nire txakurre?

-Zure txakurre? Zure txakurregaz itzela pasau jata!

-Zer pasau jatzu ba?

-Txakurrak galdetu deust ia zuk oraindino krideagaz lo egiten dozun.

-Eta zer esan deustazu ba?

-Nik txakurra hartu eta erre kara bota dot!

-Ondo eginda! Nik ez dot behar hortik sekretuek kontetan dauan txakurrik. Eskerrik asko!

Holan biek besarkatu eta betiko moduen lagunek izaten segidu eben. Abadeak, hurrungo urtegunean ez eban herritarren erregalurik onartu, holangorik atzera be ez pasetako.

5.2. Aite eta semea

Baten bastante propietarioa izan zan batek semea bota eban erdera ikasten, euskereagaz ezer ere ez eta. Joan zan aite hori semea bisitetan:

-Zelan semetxue ba?

-Ondo aite, ikasi dot e? Ikasi dot erdere a elegante. Banoa etxera.

Etorri ziran eta joan ziran feriera idiek erosten. Aiteri gustau jakozan idi batzuk eta esan eutson:

-Semetxue preguntau egizu ia honixek idiek zenbet balio daben.

Semea joan zan eta preguntau eutsien:

-¿Éste es aquel?

-No, este es este, y aquel es aquel.-Erantzun eutsien idien usabak.

Esan eutson orduen aitek:

-Zer diño semetxue?

-Batak adarka egiten dauala eta besteak ostikeka.

-Jesus ene semea! Jainkoz joan zara erderaz ikasten, osterantzen sartzean deuskue engañue terriblea!

5.3 Dendakoa

Batek eukin eban zorra dendan. Joaten zan erosten gauzek eta aititu bez. Eta nozenoz dendakoak esan egin behar:

-Zu, zorra?

-Zorrari orioa.

*Zeozer, tornillo bat zor badau orioa bota behar joko bigundu daiten.

5.4 Erratue

Propietario handie izan zan eta seme bat eukiten eban. Han ondoan neska bi, bata izan zan guapea eta bestea mostxoaua. Aiteri esaten eutson semeak:

-Niri haxe neskea gustetan jata, niri haxe neskea gustetan jata.

Joan ziran eta akordau eben ezkontza hori. Gero, ezkontuten etorri ziranean guapea barik bestea jantzite eleizarako.

-Nik hori ez dot eskojidu gero! Nik horregaz ez neban esan e, besteagaz baño!

Eta aitek esan eutson:

-Bestea okerra da e, honek hobeto esango deutsu zuri.

-Bai baina hori zaharra be bada bestean aldean!

-Ez dau ardure, honek beren urteak berak eroango dauz eta zuk zureak!

5.5 Es pequeño y ...

Dimen eukin ieben maisu bat Valladolid partekoa, goseak hile. Eskolan egozala umeai danai esaten eusien:

-¿Qué ya habeis matado el cerdo o qué?

Gero umeak etxean kontetan eben eta eroaten eutsien txorixoen bat edo, maisuentzat, etxean egoten zanetik.

Baten maisuek ume bateri preguntau eutson ia txarrie hil baeben eta umeak kontestau:

-Es pequeño y...

Maisuek pentsau eban “es pequeño y no hay para repartir” eta umeak esan gura izan eban “es pequeño y todavía no se va a matar”. Eta gero maisuek beti puntadea botaten eutson “es pequeño y”, sarri sarri esaten eutson.

5.6 Ferietik bueltan

Gizon bat joan zan feriera eta etorri zanean alegretxu etorri zan, baibenka etorri zan, eta ondokoak, Felixanak esan eutson:

-Milizio, baibentxu zatoz!

-Bai Felixana, edanana bada pasauko jata, edadeana bada txarto.

5.7 Frailea

Lehenago fraileak etorten ziran baba batzean. Zorrontzakoa zaldi ganean etorten zan. Legoa zan, frailetzara ailegau ez zana. Etorri zan Dimera, etxe batera. Esan eutson etxekoari:

-Ni konbentureko baba batzean nator.

Eta kontestau eutson etxeko usabak:

-Gurean aurtengo babak batute dagoz.

-Bueno ba orduen datorren urtera arte Jainkoak gure badau.

-Datorren urtean be oingo tertzioan bazatoz batute egongo dire eta arinau bazatoz berde.

5.8 Jentilzubi

Jentilek inder guztiekaz honantza ekarri eben kobazulo zati bat.

5.9 Joskileana

Lehenago etxerik etxe ibiltzen ziran andrak josten. Joskileari zauzertxo emoten jakon jateko. Baten, etxe baten arrutze bat erre eutsien joskileari eta etxeko umeak guztiek jarri ziran beren inguruen begire. Eta joskileak esan eutsien:

-Kendu hortik, zuentzat gero hondakinek jango dozuez eta!

5.10 Krideana

Lehenago krida joaten zan. Etxera bueltau zan alabea Bilbotik. Zapatak abiertoak eta amama sutondoan eta begitu egiten eutson lobatxu horrerri eta esan eutson:

-Bilbo esaten da, Bilbo, baina Bilbon ez dau berezkorik, Bilbora joan eta zapata apurtuekaz etxera!

5.11 Laminak

Agustietan pañelo bat laminek hartu eta erre egin eben eta han agartu ei zan.

5.12 Soldadu joan zana

Joan zan soldadu, lehenago soldadu joan behar izaten zan eta. Soldadu joan zan semea eta etorri zanean permisoagaz aitek esan eutson:

-Zelan ba semetxue, zelan?

-Ondo ba aite, ondo!

-Jan eta ondo egiten dozue?

-Bai, igurdien garbantzuek eta patatak eta gaubean patatak eta garbantzuek.

-Orduen ondo?

-Bai, “inglesia” esaten jakon eleiza baten entzuten dogu mezea. Eta “rio” esaten jakon erreka baten ure edan.

5.13 Sorginak

Katuezkiletan bizi ziran.

5.14 Trena

Trenak urten ebanean, nobedadera, joan ziran Bilbora eta Bilbotik etorri ziranean aitek preguntau eutsien umeai:

-Zer, tren hori zelangoa da ba?

-Zelangoa aite? luzetara etorri dalako, zabaletara etorriko bazan danok tragetan gaitu!